



Ebazpena, 2022ko ekainaren 6koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zuzendari beraren 2022ko apirilaren 5eko Ebazpenaren akatsak zuzentzen dituen. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda, 2022/2023 ikasturterako.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko apirilaren 5eko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan 2022-2023 ikasturtean ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Rebeca Fernández-Rivera Moreira izangaia ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrendan 2022/2023 ikasturterako. Hala ere, omisioa akats material baten ondorioa denez, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ikusita, honako hau baitio: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak", behin betiko zerrendan sartzea dagokio, izangaiak egindako aukeren arabera.

Era berean, honako hautagai hauen kasuan, akats aritmetiko bat gertatu da egindako zerbitzu-egunen zenbaketan, eta hala dagokionean soilik, baremoko puntuazioa aldatu egin da: Ana Altuna Zimmermann, M^a Esther Bilbao Sarria, Aissa Campos Iurretagoiena, Maialen Lacalle Conde, Aizpea Macuso Etxebeste, M^a Jose Nestares Arnaiz, Miren Salaverria Eguzkiza, Irene Tejero Cabrerizo eta Udane Uribarren Uribe izangaien kasuetan

Beraz,

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko apirilaren 5eko Ebazpenaren akatsak zuzentzea: ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zen 2022/2023 ikasturterako, alde batetik, Rebeca Fernández-Rivera Moreira andrea behin betiko zerrendan sartzeari dagokionez, izangaiak berak egindako aukeren arabera; bestaldetik Ana Altuna Zimmermann andreak, M^a Esther Bilbao Sarria andreak, Aissa Campos Iurretagoiena andreak, Maialen Lacalle Conde andreak, Aizpea Macuso Etxebeste andreak, M^a Jose Nestares Arnaiz andreak, Miren Salaverria Eguzkiza andreak, Irene Tejero Cabrerizo andreak eta Udane Uribarren andreak egindako zerbitzuen inguruko akatsak zuzentzea, eta dagokion kasuetan soilik, baremoaren puntuazioa aldatzea.

Bigarrena.- Ebazpen hau www.hezigunea.euskadi.eus web orrian Berriak atalean argitaratuko da.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 6a

Langileak Kudeatzeko Zuzendaria
BLANCA GUERRERO OCEJO